

MARTXOAK 21. ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

“Aurten ere, pandemian murgilduta egon arren, martxoaren 21ean Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna izango da. Data horrek aukera ematen digu hausnartzeko, batetik, egunero milioika pertsonen bizi duten tragediaz, eta, bestetik, intolerantzia arrazistaren eta horrek sortzen duen indarkeriaren aurkako konpromiso kolektiboaz (bereziki, migratzaileen, errefuxiatuen eta bestelako gutxiengo etnikoen aurkako indarkeria izaten da aipatutakoa).

Bizi dugun egoera erabat ezohikoa da, eta ikusarazi digu, batetik, berdintasunik ezak areagotu egin direla, eta, bestetik, egoera zaurgarrienean dauden kolektiboak latzago pairatzen ari direla COVID-19ak sortutako osasun-egoeraren eta egoera sozioekonomikoaren ondorioak.

Beste alde batetik, aipatzeko modukoa da ere indartu egin direla elkarri laguntzeko sare komunitarioak: horixe izaten ari da egoera zail honen alderdi baikorrena.

Krisi honen ondorioz azaleratzen ari den guztia ikusita, bereziki arduratuta gaude alderdi politiko xenofoben diskurtsoen gorakadarekin: nazionalismo oldarkor eta baztertzailak hauspotuta, gizatasun falta naturalizatu nahi dute. Gorrotoaren eta jarduketa zehatzen diskurtsoak dira, **oinarri-oinarrizko giza eskubideak bortxatzen dituztenak**. Jendearekin jokatzeko dute, herritarrek pobrezia, lanik eta etxebizitzarik ez izateari eta abarri dioten beldurra migratzaileen aurkako beldurra eta arbuioa bihurtu dadin.

Gaur egun, oraindik ere, sarritan gertatzen da giza eskubideei eta oinarritzko askatasunei muzin egiten zaiela eta berauek bortxatzen direla, bereizkeria edo nagusitasuna aldarrikatzen duten doktrinen bitartez (batez ere, igarotze-, pentsamendu-, kontzientzia-, erlijio- eta beste edozein sinesmen-askatasuni erasotzen diete). **Arduratuta gaude** horrekin.

Arrazakeriak eta xenofobiak askotariko moldeak hartzen dituzte, agerikoak zein sotilak. Aurrejuzguez, eta informazio faltsu eta moralki arbuigarriez elikatzen dira, eta jarduketa bidegabenez ere bai (zeinak gizakiak bereizi, gaitzetsi eta bortxatzen baitituzte).

Administrazioari, enpresa pribatuari, gizarte-mugimenduei eta herritarroei: gu guztioi dagokigu kontu honetan **esku hartzea**. Izan ere, gure erronka handienetako bat da **gero eta handiagoa den kultura-aniztasuna kudeatzea** —gure herrian ere, halaxe da—.

Basaurin, berretsi egiten dugu Bizikidetzaren eta **Aniztasun Plana 2016-2020**. Bertan hartutako konpromisoa: pertsona guztientzako tratua eta aukera-berdintasunaren alde lan egitea, gizarte bidezkoago eta kohesionatuago bat eraikitzeko.

Zehazkiago, Basauriko Udalak, 2021ean, lehenago hartutako konpromiso hauek berresten ditu:

- **Ez erabiltzea migratzaileak, errefuxiatuak eta gutxiengo etnikoko pertsonak** hitzaldi eta planteamendu politikoetan inor erasotzeko.
- **Gaitzestea** edozein alderdi politikok migratzaileak, errefuxiatuak eta gutxiengo etnikoetako pertsonak (bereziki herrian bizi direnak) **erabiltzea mediatikoki, nahita, modu alarmista batean eta aurrejuzguz jositako diskurtso batekin.**
- **Bizikidetza eta aniztasuna kudeatzeko dauden udal politikei** jarraipena ematea eta politika horiek hobetzea, hauteskundeen emaitzak edozein izanda ere.

Era berean, eskumena duten erakunde guztiei eskatzen diegu bete dezatela nazioarteko babesari eta asilo eskubideari dagokionez hartutako konpromisoa, eta gure mugetan ere giza eskubideak babestu ditzatela.

Basaurin behin eta berriro erakutsi dugu **ez garela beste herrietatik etorritakoekin eta gutxiengo etnikoetako pertsonekin bizitzearen beldur**. Uste dugu immigrazioa, arazoa baino, konponbidearen parte dela, gizartea aberasten eta anitzago bihurtzen laguntzen duelako.

Hori guztia dela eta, herritarrak gonbidatzen ditugu aniztasunean bizitzera eta bizikidetzaren alde eta bazterkeria eta xenofobiaren aurka egun honetan antolatuko diren ekimenetan parte hartzera.”

Basauriko Udaleko Bozeramaileen batzordeak onartu du Adierazpen instituzional hau eta ondoko hauen atxikimendua jaso du:

- **AMPA BIZKOTXALDE**
- **ASOCIACION COLOMBIA-EUSKADI**
- **ASOCIACION SENBASURI**
- **BASOZELAIKO AUZOKIDEEN ELKARTEA**
- **CARITAS BASAURI**
- **KAREAGA AUZO ELKARTEA**